

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko ordainagiria kobratzea

Nik, Lucio Castañeda Martínez de Treviño Guardiako (Araba) Udaleko alkate-lehendakariak, hauxe jakinarazten dut:

2020ko martxoaren 16tik 2020ko apirilaren 16ra, bi egun horiek barne, ordaindu ahal izango direla borondatezko epean 2020ko zerga hauek:

1. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

I. Ordaintzeko epea:

A. A. Borondatezko epea: 2020ko martxoaren 16tik 2020ko apirilaren 16ra.

B. Betearazte epea, ehuneko 5eko errekariguarekin: Borondatezko epea bukatutakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, indarrean dagoen Diru-bilketarako Arautegi Orokorrean ezarritako xedapenen arabera.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A. Banketxeetan helbideraturako ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideraturik gabe dutenek, borondatezko epean bakarrik ordaindu ahal izango dute, Guardiako Udaleko bulegoetan, txartel bidez.

III. Gomendioak:

Bankuan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Guardiako Udalari jakinaraziko zaio, egin beharreko jakinarazpenetarako.

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Guardia, 2020ko martxoaren 3a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO